



## Azalpena HE2 EKI proiektua

### I. ENTZUNDAKOAREN EDUKIA

Gero eta ikastetxe gehiagotan erabiltzen den EKI programaren berri ematen da. Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak bultzatutako programa da. Ikastoletan ez ezik eskola publikoetan ere erabiltzen ari da, eta Integrazioaren pedagogian du oinarria. Alegia, ikasteko beste modu bat proposatzen du: azterketarik gabe lantzen diren gaiak eta ezagutzak modu integratuan eskuratzea.

Ikastolen Elkarteak Elkar argitaletxearekin batera landu du programa. DBHn jarri zuten martxan, baina LHn ere hasi dira erabiltzen; helburua LH osara zabaltzea da.

Hainbat irakasle aritu dira materiala sortzen. Bi elkarrizketatu dituzte: Maite Gomez, Oiartzungo ikastolako irakaslea eta Ritxi Abril, Lekeitioko Azkue institutuko koordinatzailea.

**Zer da EKI programa?** Europatik zetorren ildoari jarraituta konpetentzietan oinarritzen den hezkuntza; giltzarri diren konpetentziak definitzen ari ziren garai horretan. Ildo hori Euskal curriculumean txertatu zuten eta gure ingurunean egokitu zuten.

Horretarako, konpetentziak txertatzeko, aukeratu zuten eredu pedagogikoa da integrazioaren pedagogia.

2008an Lovainako unibertsitateak lagundu zien egituraketan.

2009an Euskal Curriculumari baiezkua eman ziotenean abiatu zuten bidea. Talde iraunkor bat eratu eta lanean hasi ziren marko teorikoa eraikitzen: Xabier Garagorri, proiektuaren arduraduna den Xabier Aldasoro eta lantalde bat.

2012-2013an lehenengo pilotajea egin zuten ikastola batzuetan, eta 2013-14an DBHrekin abiatu ziren (ordurako DBH1erako materialak sortuak zituzten). Ondoren ikastetxe kontzertatueta eta publikoetara zabaltzen joan da.

**Zer da Integrazioaren Pedagogia?** Konpetentziak eta egoerak uztartu egiten ditu. Nola bihurtzen gara konpetente? Eginez. Konpetentziak ez dira ikasten, eginez ikasten dira eta integrazioaren pedagogiak modu ulergarrian eramaten ditu konpetentziak egoera errealetara. Ikaslea egoera baten aurrean jartzen du eta konpetentzia dela adierazi behar du.

Adibidea: sukaldaritza (amak bazekien janaria prestatzen, elikagaiak erosten eta nahasten, bazekien elikadura osasuntsua sortzen, tresnak erabiltzen, gaixo zegoenari egokitzen ... Baina eginez ikasi zuen, egokituz).

Konpetentzia bi multzo dago arloetako konpetentziak eta metadiziplinarrak.

Zein dira metadiziplinarrak:

- pentsatzen eta ikasten jakitea bizitzaren edozein esparrutan
- komunikatzen jakitea, ahoz, idatziz nahiz IKT-tresnak erabiliz
- norbera izaten ikastea, autorregulazio prozesua (ikasketetan, emozioetan ... )
- elkarrekin bizitzen ikastea, lankidetzan aritzeko
- ekiten eta egiten ikastea egoera ezberdinetan (planifikatzeko, aurreikusteko zer egin behar den, nola egingo den eta egin ondoren balorazioa egiteko)

**Beste irakasteko modu bat da?** Zalantzarik gabe. Eskola magistralak utzi eta behar denean bakarrik eman behar dira. Irakasleak bidelagun eta gidari izan behar du, etengabe zuzentzen eta bideratzen aritu behar da ikasleen lana hobetzeko, talde-giroa nola hobetu irakasteko... Gaur egungo irakaslearen eginkizuna horrelakoa izan behar du, jakintzak ere irakatsiz jakina.

### II. ENTZUNDAKOTIK ABIATUTA

- Zer iritzi duzu integrazioaren pedagogiaren inguruan?
- Konpetentzietan oinarritutako eskolak ematen dituzu? Posible da horrela ikastea?

